



ARNAS POLIGRAFIA HAURRETAN OSPITALEAN

ZER DA ARNAS POLIGRAFIA?

Arnasketa-poligrafia lo-proba bat da, eta, funtsean, loaldiko arnasketa aztertzen du. Bestek beste, sudur eta/edo aho bidezko aire-fluxua, zurrunga, odoleko oxigenoa eta torax- eta abdomen-mugimenduak neurtzen dira.

Probaren helburua da haurrak loaldian arnas nahasmendua duen baloratzea, haren larritasuna balioestea eta, hala badagokio, tratamendu bat adieraztea.

Galdetegi bat emango zaizu, eta bertan, proba gauean adingabearen loari buruzko galdera batzuk erantzungo dituzu; bestek beste, zer ordutan oheratu zaren, zenbat denbora kostatu zaizun lo hartzea, etab. Informazio hori ezinbestekoa da proba behar bezala interpretatu ahal izateko.

NOLA PRESTATU BEHAR DA HAURRA PROBARAKO?

Gurasoekin alde aurretik jarriko da harremanetan, lo-azterketa egiteko egun bat hitzartzeko.

Probaren egunean, haurrak bere ohiko bizitza egin behar du. Unitatera 21:00ak aldera joango da, falduta. Haurrak medikazoren bat hartzen badu, unitatera ekarri eta erizainari jakinarazi behar dio, eman diezaiozun. Gurasoek dena etxetik kanpo lo egitera joango balira bezala edukitzea gomendatzen da (pijama, komuneko estutxea, etab.) Egokitzena errazteko, baimenduta dago proba hasten den bitartean gurasoak edo senideak (gehienez bi) bertan egotea. Baina hori hasten denean, pertsona bakarra egongo da haurrarekin gau osoan.

NON ETA NOLA EGINGO DIOTE PROBA?

Gurasoak edo tutoreak **LOAREN UNITATERA** joango dira adingabearekin (**Santiago AUO, 2. solairua, B pabiloia**), adierazitako orduan

Itxoin itxarongelan artatua izateko.

Haurrak banakako gela lasai eta isil batean egingo du lo. Buruan, toraxean eta sabelean kable batzuk jarriko dizkiogu aparatu batzuetara konektatuta. Kable horiek loaren kantitatea eta kalitatea erregistratuko dituzte, eta medikuek gaixotasuna diagnostikatzeko aukera izango dute.

Gau osoan, erizaintzako profesional espezializatu batek gainbegiratuko du haurra, eta harekin harremanetan jartzeko aukera izango dute, interkomunikatzaile baten bidez.

Nahitaezkoa da langileei laguntzea, eta gauean adingabeak kableak jarrita dituela ikustea.

Proba hurrengo eguneko goizeko zazpiak aldera amaituko da. Kableak kentzen direnean, bainugela izango dute garbitzeko.

Proba amaitzen denean, egiaztigiri bat behar izanez gero, Harrera Zerbitzuan eskatu ahal izango da, ate nagusian.

Probak ez du arriskurik, eta ez du minik eragiten. Deserosotasuna oso txikia da, eta etxetik kanpo kable batzuk jarrita lo egin behar izatearekin lotuta dago.